SARRERA

Euskadiko Filmategia, 1978. urtean sortu zen Euskal Herriko ikus-entzunezko ondarea osatzen duen materiala gordetzeko beharrak bultzatuta. Euskal Herriko ikus-entzunezko ondarea zaintzeko burututako lanaren aitorpen gisa, Eusko Jaurlaritzak Herri Onurako Erakunde deklaratu zuen 1997an. EAEko artxibo zinematografiko bakarra denez, erreferentzia garrantzitsua bilakatu da euskal kulturaren baitan, batik bat ikerlari, produkzio-etxe, banatzaile, telebista, ikasle eta abarrentzat. 2004an fundazio bihurtu zen, eta bere patronatua Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Arabako Foru Aldundiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak osatzen dute. Eusko Jaurlaritzak bakarrik finantzatzen du erakundea.

Onartu berri den EAEko Sektore Publikoaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko 19/2024 DEKRETU berriaren arabera, eta, VII. plangintzaldiari dagokion, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan berria kontuan hartuta (2024-2027), Euskadiko Filmategiak Euskara Plana diseinatu du.

Planak diseinatzeko eta kudeatzeko, KEMEN (**K**udeaketa eta **E**rabilera Markoa **E**uskararen **N**ormalizaziorako) egitura berria landu du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPSk). Beraz, egitura berriaren arabera landu dira, batetik, diagnostikoa, eta, bestetik, planaren diseinua.

1. ARDATZA. ZERBITZU-HIZKUNTZA

1- ERAKUNDEAREN IRUDIA

1.1 Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak

ERROTULAZIOA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK

Errotulu finkoak eta noizbehinkako oharrak euskaraz eta gaztelaniaz (egokia dela ikusiz gero frantsesez) agertuko dira, euskarari lehentasuna emanez.

Euskara hutsean idatziko da errotulu eta ohar horietako testua, ezagutzera ematen den jarduera edo informazioaren izaerak edo hartzaileen berezitasunek ahalbidetzen dutenean.

Bi hizkuntza ofizialez gain, beste hizkuntzetan ere egin behar denean hurrenkera hau erabiliko da: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa (eta/edo beste hizkuntzaren bat).

Jarraibide hoiek beteko dira, halaber, honako hauetan: proiektu jarduera eta ekintza guztien izen ofizialetan, seinaleztapenean, papertegiko elementu idatzi finkoetan, etab.

TOPONIMIA

Toponimoek idazkera bikoitza dutenean, eta euskaraz eta gaztelaniaz oso antzeko grafia dutenean, euskarazkoa erabiliko da bakarra erabiltzea hobesten denean.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuak, mikrofonoz, audioa duten tresnez eta antzeko bitartekoez zabaldutakoak, lehenik euskaraz, ondoren gaztelania eta behar izanez gero, frantsesez emango dira.

Komunikazio horiek euskaraz egingo dira hartzaileen ezaugarriek hala ahalbidetzen dutenean.

1.2 Marketina publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak

Euskadiko Filmategiak euskarri fisikoan nahiz digitalean argitaratzen dituen eskuorri, liburu edo egitarauak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, edo hizkuntza gehiagotan beharrezkoa bada, eta haietan euskarari lehentasuna emango zaio.

Bi hizkuntza ofizialez gain, argitalpenak beste hizkuntzetan ere egin behar direnean, hurrenkera hau erabiliko da: euskara, gaztelania eta frantsesa.

Argitalpenaren berariazko ezaugarriek, izaerak eta jasotzaileek (adina, hizkuntza-gaitasuna, esparrua…) hala eskatzen dutenean, argitalpena euskara hutsean egingo da.

Argitalpenaren banaketa Euskal Autonomia Erkidegotik, Nafarroatik, eta Ipar Euskal Herritik kanpo egiten denean, Estatuan eta nazioartean, bertako hizkuntzaz gain, euskararen presentzia bermatuko da.

Euskara nabarmentzeko, berriz, I. eranskinean agertzen diren bideak erabiliko dira.

IRAGARKIAK, PUBLIZITATEA ETA KANPAINAK

Iragarki ofizialak eta gainerako publizitate ekintzak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, eta euskarari emango zaio lehentasuna.

Euskaraz egingo dira, hartzailearen ezaugarriek (adina, hizkuntza-gaitasuna, esparrua…) edo gaiak hala eskatzen dutenean ere, betiere, baldin eta hartzaileen eskubideak bermatuta badaude.

Bi hizkuntza ofizialez gain, beste hizkuntzetan ere egin behar denean, hurrenkera hau erabiliko da: euskara, gaztelania eta frantsesa.

Kanpainetako edukiak eta esloganak bi hizkuntza ofizialetan edo gehiagotan egin behar direnean, ez dira hizkuntza baten sorturikoaren itzulpen soila izango. Hizkuntza bakoitzaren ezaugarriak zainduz, batean zein bestean, mezu egokiak, ulergarriak eta zuzenak izango dira.

Zabalkundeari begira, iragarkiak, publizitatea eta kanpainak euskara hutsean argitaratu edo emango dira euskarazko hedabideetan.

Irizpide orokor horiez gain, komunikazio-ekintzaren arabera (ahozko eta idatzizko publizitatea, kartelak, posterrak, eskuorriak, liburuxkak eta abar) I. eranskinean agertzen diren berariazko jarraibideak ete bete beharko dira.

JENDAURREKO EKITALDIAK ETA PROGRAMA

a) Euskadiko Filmategiak antolatutako ekitaldi instituzionaletan (prentsaurreko, aurkezpen, hitzaldi eta abarretan) euskara edo bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira., euskarari lehentasuna emanez.

   Euskadiko Filmategiak euskara gaitasun egokiko pertsonak izendatuko ditu halako ekitaldietarako.

b) Euskadiko filmategiak antolatutako orotariko jardueretan (emanaldi, jardunaldi, mahai-inguru, bisita gidatu, hitzaldi eta abarretan) euskararen presentzia bermatzeko neurriak hartuko dira.

   Jendaurreko ekitaldietan, euskara sustatzeko neurriak honako hauek izango dira:

   - Euskadiko Filmategiak antolatutako jarduerak oro har euskaraz antolatuko dira. Nolanahi ere, jardueraren helburua, gaiak edo hartzaileak aintzat harturik, gaztelaniaz edo beste hizkuntza batean ere antolatu ahal izango dira, betiere hartzaileen hizkuntza eskubideak betez gero.
   - Ekitaldietan edo jardueretan bi hizkuntza ofizialak erabiltzen direnean, hurrenkera hau erabiliko da: lehenik, euskaraz eta ondoren, gaztelaniaz.

   Bi hizkuntza ofizialez gain, ekitaldien aurkezpenak beste hizkuntzetan ere egitea beharrezko denean, hurrenkera hau erabiliko da: euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez.

   - Ekitaldi elebidunetan, irizpide nagusia izango da hizkuntzen arteko oreka bermatzea. Egoerak ahalbidetzen duenean, hizkuntza bakoitzean eduki berak ez errepikatzera joko da; horretarako, hizkuntza bakoitzari

eskainitako denboran edo testu kopuruan oreka kontuan hartzeaz gain, edukien banaketa ere orekatuko da.

- Ekitaldiaren edo jardueraren izaerak aldibereko interpretazioa eskatzen duenean, aldez aurretik ongi zehaztuko dira interpretazioan izango diren hizkuntzak, eta interpretazio lana egin behar diren baliabideez hornitutako areto bat prestatuko da.
- Gaztelaniaz eskaintzen diren jardueretan, euskaraz ere egingo da aurkezpena, eta euskarazko sarrera egingo zaio ekitaldiaren atal bakoitzari. Ele bietan egingo dira jardueraren publizitatea eta jardueran banatzen diren dokumentu idatziak.
- Jarduerak ele bietan egin arren, bi hizkuntzak emanaldi bakarrean eskaintzen ez direnean, aukera hauek izango dira kontuan:
    - Gutxienez emanaldien erdia euskaraz egingo da.
    - Euskarazko emanaldia egun eta ordu egokian eskainiko da.
- Ekitaldiak edo jarduerak zein hizkuntzatan izango diren zehaztuko da publizitate eta jakinarazpen guztietan. Adierazten den hizkuntza-eskaintzak fidela izan behar du jardueran ardatz izango den edo diren hizkuntz(ar)ekin.

1.3. Ingurune digitala

Euskadiko Filmategian sare sozial eta mugikorretako aplikazioetako edukiak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz, edo euskaraz, gaztelaniaz edo frantsesez kontsultatzeko eta izapideak egiteko moduan egongo dira.

WEBGUNEAK

Euskadiko Filmategiko webguneko hizkuntza nabigatzailearen konfigurazioaren araberakoa izango da. Beraz, nabigatzailea euskaraz konfiguratuta duten erabiltzaileei euskaraz zabalduko zaie webgunea. Hizkuntza aldatzeko aukera bistan egongo da eta aukera hauek eskainiko ditu: euskara eta gaztelania. Eta frantsesa eta ingelesa (finkoak diren atalak).

Internet sarearen bidez egin daitezkeen izapideak euskaraz eta gaztelaniaz egiteko moduan egongo dira. Euskarazko orrietan txertatzen diren estekak, aukera dagoen guztietan, euskarazko orrietara bideratuko dira. Era berean, erantsitako dokumentuen izenak eta edukia euskaraz idatziko dira.

Euskaraz sortuko dira webguneetako eta web orrietako helbideak (adib. https://filmoteka.eus/eu/bilduma/multimedia edo https://filmoteka.eus/eu/programazioa) eta Euskadiko Filmategiaren webgune eta helbide elektronikoek .eus domeinua izango dute.

SARE SOZIALAK

Sare sozialetako kontuak elebidunak izango dira, eta beharrezkoa denean mezuak frantsesez ere argitaratuko dira.

Testua mezu bakarrean doanean, euskara goi aldean gera dadin, lehenik idatziko da, eta bi mezutan doanean, lehenik gaztelaniazko mezua idatziko da, eta, jarraian, euskarazkoa, aurretik bistaratu dadin. Bi kasuetan helburua izango da hizkuntzen hurrenkera honakoa izatea: euskara, gaztelania, frantsesa (egongo balitz).

Kanpoko gaztelaniazko edo ingelesezko mezu bat gure kontuan txertatzen dugunean, euskarazko aurkezpen hitzak gehituko dira.

HELBIDE ELEKTRONIKOAK

Helbide elektronikoak euskaraz sortuko dira eta euskaraz izendatuko dira helbide elektronikoen multzoak (adib. harrera@ etab.).

2. ERABILTZAILEEKIKO ETA HERRITARREKIKO HARREMANAK

Orokorrean, herritarrengandik mezu bat euskaraz jasotzen bada, euskaraz erantzungo da. Bi hizkuntzatan jasotzen bada, bi hizkuntza ofizialetan erantzungo da.

2.1. Idatzizko harremanak

Euskadiko Filmategiak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz (edo beharrezkoa den kasuetan beste hizkuntza batetan ere) eskainiko du erabiltzaileei zuzendu beharreko idatzi oro. Herritarrak edo dagokion entitateak Euskadiko Filmategiarekiko harremanetan euskaraz jardutea hautatu duenean euskarazko testuak erabiliko dira.

2.2. Ahozko harremana

HARRERA

Euskara eta gaztelania izango dira herritarrei zerbitzua emateko hizkuntza nagusiak Euskadiko Filmategiko egoitza fisiko nahiz birtual guztietan. Euskadiko Filmategiak erabiltzaileekiko dituen harreman mota guztietan bermatu beharko da bi hizkuntza ofizialen erabilera, herritarren hizkuntza hautua betetzen dela ziurtatzeko.

TELEFONOZ ETA AURREZ AURRE

Euskadiko Filmategiko langilea erabiltzaileari lehenik euskaraz zuzenduko zaio, bai aurrez aurreko harremanetan bai telefonozkoetan, eta gero erabiltzaileak hautatzen duen hizkuntzan jarraituko du, erabiltzaileak hizkuntza ofizialak erabiltzeko daukan aukera eskubidea bermatuz.

Harrera egiteko erabiltzen diren ahozko mezuak (gailu automatikoz, telefono bidezko informazio zerbitzuen bidez eta abarrez emandakoak) euskaraz eta gaztelaniaz emango dira, hurrenkera zehatz horretan, edo beharrezkoa den kasuetan euskaraz eta gaztelaniaz, baita frantsesez edo ingelesez ere beharrezkoa den kasuetan.

2. ARDATZA. LAN-HIZKUNTZA

3. BARNE KOMUNIKAZIOA ETA LAN-TRESNAK

3.1. Idatzizko komunikazioa

Lanari lotutako errotulazio finkoa (apal, artxibategi, karpeta eta abarretan jartzen diren etiketak…) eta noizbehinkako oharrak euskaraz idatziko dira, oro har.

INFORMAZIORAKO EDOTA KOMUNIKAZIORAKO TRESNAK

Euskadiko Filmategiak kudeatutako komunikazio-tresnetan (barne-oharrak, zirkularrak, etab.) euskarak izango du lehentasuna, eta bideragarria den kasuetan euskaraz soilik izango dira.

Langileek barne-izapideak egiteko dauzkaten baliabideetan (aplikazioak, inprimakiak…) izapide horiek euskaraz egiteko aukera egongo da, teknologiak ahalbidetzen duen neurrian.

LAN-BILERETAKO IDATZIAK

Lan bileretan hizkuntza kudeatzeko irizpide hauek erabiliko dira:

a) Euskadiko Filmategiko departamentuek antolatzen dituzten barne-bilerak euskaraz egingo dira, oro har.
b) Bilera egindako hizkuntzan jasoko da bileraren akta.

ERAKUNDEAREN BARNE-HARREMANETARAKO IDATZIAK

a) Euskadiko Filmategiak euskaraz egingo ditu barne-harremanetarako idatziak, edo elebitan, kasuren batean euskarazko ulermen maila bermatua ez badago. Eta laneko dokumentuen sortze-hizkuntza euskara izan dadin bultzatuko du.
   Departamentuaren arteko harremanetan euskarazko komunikazioak sustatuko dira, ahoz zein idatziz.
b) Euskadiko Filmategiko langile guztiei (hartzaile jakinik gabe) bidalitako dokumentuak, mezuak, abisuak, jakinarazpenak, gutunak… euskara hutsean egingo dira, edo elebitan, kasuren batean euskarazko ulermen maila bermatua ez badago.

3.2. Ahozko komunikazioa

ERAKUNDEAREN BARRUKO LAN-BILERATAKO AHOZKO HARREMANAK

a) Bileran parte hartuko duten kide guztiek euskaraz gaitasun nahikoa dutenean, euskaraz egingo da bilera.
b) Bilerako partaide guztiak euskaraz mintzatzeko gai ez direnean, baina mezuak hizkuntza horretan ulertzeko gaitasuna badute, euskaraz egingo da bilera, hizkuntza horretan hitz egiteko erraztasunik ez dutenek gaztelaniaz hitz egiteko aukera bermatuz.

ERAKUNDEAREN BARRUKO TELEFONOZKO HARREMANAK

Langileen arteko telefono bidezko harremanetan, lehen hitza euskaraz egingo da eta euskaraz jarraituko da solaskidearen ulermena bermatuta dagoenean.

ERAKUNDEAREN BARRUKO AURREZ AURREKO HARREMANAK

Euskadiko Filmategiko barruko harremanetan, langileen arteko aurrez aurreko harremanetan, ahozko jardunak euskaraz egin daitezen sustatuko da solaskideen ulermena bermatuta dagoenean.

3.3. Baliabide informatikoak

EUSKARAZKO BERTSIOEN INSTALAZIO KOPURUA

Euskadiko Filmategiko zerbitzuetan erabiltzeko diren programa, aplikazio, datu-base eta tresna informatikoekin euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan lan egin ahal izateko neurriak hartuko dira. (Ikus neurriak II. Eranskinean).

EUSKARAZKO BERTSIOEN ERABILERA

Programa, aplikazio, datu-base edo tresnen euskarazko bertsioa instalatu ahal izateko jarraibideak bidaliko zaizkie langile guztiei, hala nahi duenak, euskaraz erabil ditzan.

4. KANPO-HARREMANAK

4.1. Euskal esparruko erakunde publikoak

EUSKAL ESPARRUKO ERAKUNDE PUBLIKOEKIKO IDATZIZKO HARREMANAK

Euskadiko Filmategiak Euskal Autonomia Erkidegoko nahiz Nafarroako Foru Komunitateko erakunde publikoei idatziak euskaraz eta gaztelaniaz bidaliko dizkie. Erakunde publikoa Ipar Euskal Herrian kokatua bada, berriz, euskaraz edo/eta frantsesez.

Euskadiko Filmategiaren eta erakunde horien arteko harremanak euskaraz burutuko dira, hala adosten dutenean.

Erakunde horietatik jasotako idatzien erantzunei dagokienez, euskaraz idatzitako agiriena euskaraz bideratuko da. Idatzia ele bietan edo gaztelaniaz jaso bada, bi hizkuntza ofizialetan bideratuko da.

ERAKUNDE PUBLIKOEKIKO AHOZKO HARREMANAK

Euskadiko Filmategiko langileak lehen hitza euskaraz egingo du, eta euskaraz jarraituko du, solaskidearen ulermena bermatua badago. Euskadiko Filmategiaren eta erakunde horien arteko harremanak euskaraz izango dira, hala adosten dutenean.

4.2. Erakunde eta elkarte pribatuak

IDATZIZKO HARREMANAK ERAKUNDE ETA ELKARTE PRIBATUEKIN

Euskadiko Filmategiak harremana duen Euskal Herriko erakunde eta elkarte pribatuei idatziak euskaraz eta gaztelaniaz bidaliko dizkie.

Euskadiko Filmategiaren eta erakunde horien arteko harremanak euskaraz burutuko dira, hala adosten dutenean.

Erakunde horietatik jasotako idatzien erantzunei dagokienez, euskaraz idatzitako agiriena euskaraz bideratuko da. Idatzia ele bietan edo gaztelaniaz jaso bada, bi hizkuntza ofizialetan bideratuko da.

AHOZKO HARREMANAK ERAKUNDE PRIBATUEKIN

Erakunde eta elkarte pribatuekiko harremanetan, Euskadiko Filmategiko langileak lehen hitza euskaraz egingo du, eta euskaraz jarraituko du, solaskidearen ulermena bermatua badago.

Euskadiko Filmategiaren eta erakunde horien arteko harremanak euskaraz izango dira, hala adosten dutenean.

5. KUDEAKETA

5.1. Pertsonen kudeaketa

Euskadiko Filmategiko lanpostuen katalogoan lanpostu bakoitzak eskatzen duen hizkuntza-maila jasoko da eta lanpostua beteko duen profilak eskatzen den maila hori betetzen duela bermatuko da.

Praktikak egiteko Euskadiko Filmategian hartzen diren ikasleei zeregin bat eta/edo toki bat esleitzeko orduan, kontuan hartuko da haien hizkuntza-gaitasuna. Edonola ere, ezin izango dira jendaurrean jarri euskaraz ez dakiten ikasleak, ez bada bermatzen eduki hori euskaraz emateko modurik (beste pertsona bat, aldibereko itzulpena…).

Laneko prestakuntza orokorreko ikastaroak euskaraz antola daitezkeenean, euskaraz egin daitezen sustatuko da. Neurriak hartuko dira, zuzenean Euskadiko Filmategiak antolatutako ikastaroak, aukera dagoen guztietan, euskaraz izan daitezen; horretarako, prestatzaile euskaldunak eta euskarazko edukiak bilatzeari emango zaio lehentasuna. Halaber, eskaintza egiterakoan, ikastaroak zein hizkuntzatan izango diren zehaztuko da.

5.2. Zerbitzu-kontratuak

Kontratazio-Organoaren betebeharrak:

- Hizkuntza-klausulak txertatzea, beti eta kontratu mota edozein dela ere. Kontratuaren xedearen arabera, bi hizkuntza ofizialen edo, behar izanez gero, hizkuntza gehiagoren erabilerari buruzko baldintzak txertatuko dira.

- Bi hizkuntza ofizialetan argitaratzea kontratua arautzeko sortzen den dokumentazioa; besteak beste, lizitazio iragarkiak, administrazio-klausula berezien agiriak, baldintza teknikoen agiriak eta kontratuko gainerako dokumentuak.

- Neurriak hartzea kontratuetan txertatutako hizkuntza-baldintzak betetzen diren egiaztatzeko eta hizkuntza ofizialen erabileraren zuzentasuna zaintzeko.

Kontratazioari lotutako irizpideak III. eranskinean jasotzen dira.

5.3. Lankidetzak eta laguntzak

Euskadiko Filmategiarekin lankidetzan jardueraren bat egiten duten entitateek eta pertsona fisikoek ondokoa jarraitu beharko dute:

a) Lagundutako jarduera ezagutzera emateko edo jardueraren lagungarri gisa egiten dituzten euskarri guztiak, ahoz zein idatziz (argitalpen, idatzi, iragarki, ohar, propaganda, bozgorailu...), euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dira. Horietan guztietan adierazi egingo da zein hizkuntzatan egingo den jarduera.

b) Laguntzen den jarduera webgunea, dibulgazio-argitalpena edota aldizkaria bada, jardueraren beraren edukia ere euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko da.

c) Era berean, jendaurreko ekitaldietan ematen dituzten mezuak ere euskaraz edo lehenik euskaraz eta ondoren gaztelaniaz edo-eta beste hizkuntzetan emango dira.

Aipatutako kasu guztietan, euskara soilik erabili ahal izango da, baldin eta hartzaileen edo herritarren eskubideak bermatuta badaude.

Jarraibide hauek laguntza jasotzeko era guztietako oinarrietan eta lankidetza hitzarmenetan txertatuko dira.

Laguntza esleitzeko ardura dutenek, beren baliabideek ahalbidetzen duten heinean, bidezkoak diren neurriak hartuko dituzte onuradunek atal honetan xedatutakoa betetzen dutela egiaztatzeko eta hizkuntza ofizialen erabileraren zuzentasuna zaintzeko.

Hizkuntza-irizpide hauek betetzea ezinbesteko baldintza izango da laguntza eskuratzeko.

EUSKADIKO FILMATEGKO INSTALAZIOEN ETA MATERIALEN ERABILERA

JARDUERA PUBLIKOAK

Euskadiko Filmategiko instalazioak eta materialak erabiliz antolatutako edozein jarduera publikori loturik argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar, txartel edo gainerakoak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira, euskarari lehentasuna emanez, eta hizkuntza horietan egingo da jarduerarен publizitate eta zabalkundea. Ahozko oharrak zabalduz gero, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira; ele bietan eginez gero, euskarari lehentasuna emango zaio. Euskara soilik erabiliko da, baldin eta hartzaileen edo eragindakoak diren herritarren eskubideak bermatuta badaude.

Jendeari harrera egiteko langileek bermatu egin beharko dute euskara, gaztelania bezalaxe, zerbitzu hizkuntza izango dela eta lehen hitza euskaraz egingo dute.

Bi hizkuntza ofizialez gain, komunikazioan beste hizkuntza batzuk erabili behar direnean, hurrenkera hau erabiliko da: euskara, gaztelania, eta frantsesa edo ingelesa.

Zehaztu diren hizkuntza-irizpideak betetzeko, baimenak emateko baldintzen artean hizkuntza-baldintza horiek txertatuko dira, eta hala adieraziko zaio interesatuari.

JARDUERA PRIBATUAK

Euskadiko Filmategiko instalazioak eta materialak erabiliz antolatutako edozein jarduera pribaturi loturik, erakundearen eremu publikoan jartzen diren idatzi, iragarki, ohar, txartel edo gainerakoak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira, euskarari lehentasuna emanez.

1. ERANSKINA

EUSKARA NABARMENTZEKO BIDEAK EUSKADIKO FILMATEGIKO KOMUNIKAZIO, ARGITALPEN, IRAGARKI, PUBLIZITATE-KANAPINA ETA GAINERAKO EUSKARRIETAN

Euskadiko Filmategian komunikazio, argitalpen, iragarki, publizitate-kanpaina eta edozein motatako euskarrietan sortutako idatzi elebidun eta eleaniztun guztietan euskarari emango zaio lehentasuna.

A) IDAZKIAK ETA ERROTULUAK

1. Euskadiko Filmategiak sortutako komunikazioetan, beharrezko neurriak

hartuko dira euskara nabarmentzeko. Horretarako, jarraibide hauek erabiliko dira:

- Kokapena: hitzak, esaldiak edo paragrafoak direnean, euskara aurrean edo gainean; zutabeak direnean, ezkerrekoa euskararentzat; eta bi orrialde direnean, eskuinaldekoa euskararentzat.

- Tipografia: letraren neurria eta mota erabil daitezke euskara nabarmentzeko, edo tipografia berean letra lodia erabiliz nabarmendu ahal izango dira euskarazko testuak.

- Letra eta atzealdearen koloreak kontuan izango dira euskara nabarmentzeko. Hizkuntza bakoitza kolore desberdin batean idazten denean, hondoarekiko kontraste egokia dagoela ziurtatuko da, euskara nabarmenago gelditu dadin.

2. Datak, helbideak eta sinadurak euskaraz idatziko dira, baita dokumentu elebidunetan ere.

3. Komunikazio eleaniztunetan hizkuntzak hurrenkera honetan erabili beharko dira: euskara, gaztelania eta frantsesa (beharrezkoa bada, ondoren, ingelesa).

B) ARGITALPENAK

1. Eredu elebidunak egiten direnean, ondoko neurriak erabiliko dira euskara nabarmentzeko:

   a) Orri berean bi hizkuntzak batera doazenean:
   - Hitzak, esaldiak edo paragrafoak direnean, euskara aurrean edo gainean joango da eta letra lodian eta/edo handiagoan.

- Zutabeak direnean, ezkerrekoa euskararentzat izango da.

b) Orri berean bi hizkuntzak batera ez doazenean:

- Eskuineko orria euskararentzat eta ezkerrekoa gaztelaniarentzat.
-
- Ale erdia euskaraz eta beste erdia kontrako norabidean gaztelaniaz.

- Salbuespenez, orri kopurua handiegia denean, bi euskarri elebakarretan argitaratu ahal izango da. Kasu honetan honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

Argitalpenaren ale kopuruaren erdia gutxienez euskaraz izatea.

Euskarazko argitalpena agerian eta herritarrentzat eskuragarri jartzea.

Eredu eleaniztunak egiten direnean, ondoko bideak erabiliko dira euskara nabarmentzeko:

Orri berean hizkuntzak batera doazenean:

- Hitzak, esaldiak edo paragrafoak direnean, euskara aurrean edo gainean joango da eta letra lodian eta/edo handiagoan.

Orri berean hizkuntzak batera ez doazenean, ondoren azaltzen diren aukera hauek erabili ahal izango dira:

- Ale berean, hizkuntza bakoitzean edukiak osorik eta jarraian joango dira, hurrenkera honetan: euskara, gaztelania eta ingelesa.

- Erdia euskaraz izango da eta beste erdia kontrako norabidean gaztelaniaz edo ingelesez.

Salbuespenez, orri kopurua handiegia denean, euskarri elebakarretan argitaratu ahal izango da. Kasu honetan, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan: euskarazko aleak proportzio berean argitaratuko dira, gutxienez, eta euskarazko bertsioa agerian eta herritarrentzat eskuragarri jarriko da.

C) IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA AHOZKO PUBLIZITATEA

1. Bi hizkuntza ofizialak batera erabiltzen direnean, euskara nabarmentzeko neurri hauek hartuko dira:

- Eduki berberak adierazi behar badira, lehenik, euskaraz eta, ondoren, gaztelaniaz emango dira.

- Eduki ezberdinak adierazi behar badira, euskarazkoak, gutxienez, erdiak izango dira eta hizkuntzak hurrenkera honetan erabiliko dira: lehenik, euskaraz eta, ondoren, gaztelaniaz.

2. Hizkuntza gehiagotan egin behar direnean eta guztiak batera doazenean, oro har, eduki ezberdinak landuko dira. Euskara dagokion proportzioan erabiliko da eta edukiak hurrenkera honetan emango dira: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez (ondoren, ingelesez, eta hala badagokio, besteren bat).

3. Bi hizkuntzak aldi berean erabiltzen ez direnean honako jarraibide hauek beteko dira:

- Euskarazko publizitatearen emankizun kopurua, gutxienez, erdia izango da edo gainerako hizkuntzekiko oreka gordeko da.

- Une edo ordu egokiak aukeratuko dira.

2. ERANSKINA

BALIABIDE INFORMATIKOEI BURUZKO XEHETASUNAK

A) ORDENAGAILUAK, TELEFONOAK, TABLETAK…

Baliabide informatikoekin euskaraz lan egin ahal izateko neurri hauek hartuko dira:

1. Programa edo tresna horiek hasieratik euskaraz edo ele bietan sortu edo kontratatuko dira, ahal den heinean.

2. Gaztelaniaz bakarrik egin edo kontratatu ziren programa, aplikazio eta datu baseen egokitzapena egingo da era progresiboan, lehentasunak finkatuz, ahal den heinean.

3. Euskarazko bertsioa duten produktuak eskuratzeko ahalegina egingo da

merkatuan.

4. Euskarazko zuzentzailea txertatua duten aplikazioak lehenetsiko dira.

5. Aplikazioak edo datu-baseak ele bietan prestatu behar direnean, hizkuntza bakoitzak bere interfaze osoa izatea lehenetsiko da. Hala ere, pantaila berean bi hizkuntzak agertu beharko balira, euskarazko testuak modu honetan nabarmenduko dira:

- Kokapena: euskarazko hitzak aurrean edo gainean joango dira.
- Tipografia: letraren neurria eta mota erabil daitezke euskara nabarmentzeko (letra lodia, kolorea...).

6. Aplikazio eta datu-baseekin lotzen diren zerrendak euskaraz egongo dira.

3. ERANSKINA

KONTRATUEN ARABERAKO HIZKUNTZA-KLAUSULAK

Kontratuaren izaeraren arabera, baldintza-pleguetan hizkuntza-jarraibide hauek txertatuko dira:

A) ZERBITZU-KONTRATUAK ETA LIZITAZIOAK

A.1) Kontratuaren objektuaren ezaugarri desberdinen arabera aurreikusi beharreko hizkuntza-jarraibide zehatzak:

A.1.1) Kontratuaren xedea herritarrei zuzendutako zerbitzua ematea denean, hala nola informazio puntua, bisita gidatuak, jardueren dinamizazioa, harrera-zerbitzuak, aretoetako zaintza, jardueretako harrera, etab., bermatu egin beharko da euskara, gaztelania bezalaxe, zerbitzu- hizkuntza izango dela. Horiek horrela, honako jarraibide hauek beteko dira, ahozko zein idatzizko komunikazioetan:

1. Harrera-hizkuntza euskara izango da eta herritarrak aukeratutako hizkuntzan jarraituko da, bai telefonoz, bai aurrez aurre. Era berean, ahozko mezuak, erantzungailu automatikoz, bozgorailuz, audioa duten tresnez eta antzeko bitartekoez zabaldutakoak, bi hizkuntza ofizialetan eta ingelesez (eta hala badagokio, frantsesez) emango dira, hurrenkera honetan: euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesa.

2. Zerbitzu hori emateko erabiltzen diren idatzizko osagai guztiak (inprimakiak,

jakinarazpenak, oharrak, seinaleak, errotuluak, azalpenak, publizitatea...) bi hizkuntza ofizialetan idatziko dira, euskarari lehentasuna emanez.

3. Komunikazio horiek guztiak, idatzizkoak nahiz ahozkoak, euskaraz egingo dira, hartzaileen ezaugarriek hala ahalbidetzen dutenean.
   Aurreko irizpide horiek egoki betetzeko, kontratuaren esleipena arautzen duten baldintza teknikoen agirian eta administrazio-baldintza berezien agiriko taula erantsian zehaztuko da langileek izan behar duten hizkuntza-gaitasuna. Hizkuntza-gaitasunaren egiaztapena Europako Erreferentzia Esparrura egokitzeko 297/2010 Dekretuan jasotako titulu eta ziurtagirien bidez egin ahal izango da. Era berean, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren arabera, aintzat hartuko dira euskaraz egindako ikasketa ofizialak, eta kontuan hartuko dira hizkuntza titulu eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuetsitako kasuak.

Subrogatutako langileek eskatutako hizkuntza-gaitasuna betetzen ez badute, kontratua euskaraz gauzatu ahal izateko, beharrezko neurriak adostuko dira herritarren eta bezeroen hizkuntza-eskubideak bermatze aldera; besteak beste, oinarrizko hizkuntza-prestakuntza ikastaroak eskainiko dira. Langile horiek ordezkatu behar direnean langile ordezkatzaileek dagokien hizkuntza-gaitasuna izan beharko dute kasu guztietan.

B) ZERBITZU KONTRATU TXIKIAK

Kontratu txiki bat egiteko orduan, dagozkion hizkuntza-jarraibideak zehaztuko ditu Kontratazio-Organoak eta enpresa lizitatzaileei jakinaraziko dizkie, egokien iritzitako bidea erabiliz. Honako klausula hau txertatuko da kontratua esleitzen duen ebazpenean: “Enpresa esleipendunak, zerbitzua ematerakoan, Euskadiko Filmategiak bere hizkuntza-jarduera arautzeko dituen planen arabera jokatuko du. Horretarako, kontratua egin behar duen departamentuarekin harremanetan jarriko da, zerbitzua betetzerakoan bete beharko diren hizkuntza-baldintzen berri eman diezaion”.

4. **ERANSKINA**

LANPOSTUEI HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK ETA DERRIGORTASUN-DATAK EZARTZEKO PROZEDURA ETA JARRAIBIDEAK

A) HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

Euskadiko Filmategiko lanpostuen hizkuntza-eskakizunak otsailaren 22ko Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko 19/2024 Dekretuak xedatutakoaren arabera ezarriko dira; hau da, lanpostuaren eginkizunak euskaraz buruteko behar den hizkuntza-maila kontuan hartuta zehaztuko da lanpostu bakoitzari dagokion hizkuntza-eskakizuna.

B) Derrigortasuna-datak 19/2024 Dekretuak zehaztutakoarekin bat, Euskadiko Filmategian euskara zerbitzu-hizkuntza eta lan -hizkuntza izateko, eta horrela, Euskadiko Filmategiarekiko harremanetan herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko, Euskara-planaren Batzorde Teknikoa eta Pertsonen zuzendaritza lanpostu-zerrenda aztertu eta derrigortasun-datak ezartzen joan dira modu progresiboan.